

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZUNDAKETA-EKIPAMENDUEN KOKAPENA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0755		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zundaketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zundaketaren prestaketa	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa zundaketen zulaketan (Zeharkakoa).	Iraupena	50
	Lan-eremuaren prestaketa		30
	Zundaketa-ekipamenduen prestaketa		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0414_2 ZUNDAKETA EGITEKO EKIPAMENDUAK PRESTATZEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin, ekipamenduen kokapenari dagokienez

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zulaketa-zunda kokatzeko beharrezkoak diren eragiketak gauzatzea, egingo den zundaketaren ezaugarrien eta hautatutako zulaketa-metodoaren arabera, zundaketen eskuliburuaren irizpideei jarraituz, leku-arazorik edo makina eta elementu osagarrien egonkortasun-arazorik ez izateko.

E1.1 Zulaketa-ekipamendua kokatzeko jarraitu beharreko ezinbesteko eragiketen sekuentzia zehaztea, behar diren baliabideei dagokienez.

E1.2 Zundaketa-ekipamenduen kokapenak izan behar dituen baldintzak eta eskakizunak azaltzea, hautatutako zulaketa-metodoaren eta proiektatutako zundaketaren ezaugarrien arabera.

A2: Zulaketako ekipamendu osagarria kokatzeko beharrezkoak diren eragiketak gauzatzea, egingo den zundaketaren ezaugarrien eta hautatutako zulaketa-metodoaren arabera, zundaketen eskuliburuaren irizpideei jarraituz, leku-arazorik edo makina eta elementu osagarrien egonkortasun-arazorik ez izateko.

E1.1 Lohi-istila, lohi-ponpak, konpresoreak, baheak eta gainerako material osagarria kokatzeko jarraitu beharreko prozesua deskribatzea.

E1.2 Materiala eta ekipamendu osagarria kokatzeko jarraitu beharreko eragiketen sekuentzia zehaztea, behar diren baliabideen arabera, hautatutako zulaketa-metodoaren eta proiektatutako zundaketaren ezaugarrien arabera.

A3: Zulaketa-hodiak, estaltzeko hodiak eta zulaketa-lanabesak eta -erremintak kokatzeko beharrezkoak diren eragiketak gauzatzea, egingo den zundaketaren ezaugarrien eta hautatutako zulaketa-metodoaren arabera, zundaketen eskuliburuaren irizpideak jarraituz, leku-arazorik edo horiek guztiak jartzeko arazorik ez izateko.

E1.1 Zulaketa-hodiak eta estaltzeko hodiak jartzea.

E1.2 Zundaketa-ekipamendua zuloaren sarreran jartzea, laneko aginduan aurreikusitako norabidean.

E1.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Ekipamenduaren dorrearen inklinazioa kontrolatzea, dagokion laneko aginduari jarraituz kokatuz.
- Uraren/airearen hornidura egiaztatzea zundaketa egiteko.
- Konpresoreak, zirkoiak, ur- edo lohi-ponpak, iragazkiak eta jariakin horiek putzu barruraino eta putzutik dekantazio-istiletara eramaten dituzten hodiak jartzea, zulaketarako hautatutako jariakinaren arabera.
- Ekipamendu osagarria eta tresneria egoera onean dagoela aztertzea eta ziurtatzea.
- Obrako segurtasun- eta osasun-planean azaltzen diren babes kolektiboko elementuak (saretoak, trameak, balizak, babesgarriak) jartzea alde mugikorrek harremanetan ez jartzeko.

Edukiak:

1. Zundaketak prestatzeko prozedurak.

- Sarbideen prestaketa.
- Zabalgunearen prestaketa ekipoak kokatzeko.
- Zimenduak.
- Ekipamenduen garraioa.

- Areken prestaketa zundaketaren ingurunean lohia husteko.
- Lohi-istilen prestaketa.
- Etxolaren prestaketa.
- Haga-multzoak metatzeko eremuaren prestaketa.
- Estaltzeko hodiak metatzeko eremuaren prestaketa.

2. Zundaketen zundaketa-ekipamenduen kokapena.

- Zundaren orientazioa kokapen-diseinuaren arabera.
- Dorrearen edo mastaren orientazioa, zundaketa haren koordinatuen, inklinazioaren eta azimutaren arabera egiteko
- Ekipoen eta osagarrien kontrola eta ikuskapena.
- Zundaketaren ingurunea seinaleztatzeko gailuak.
- Ekipamendu osagarrien, hots, lohi-ponpen, mahuken, konpresoreen eta ur-igerilekuaren kokapena.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0754 Zundaketa-ekipamenduen prestaketa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zundaketak